



PREBENTZIOKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA, COVID-19 GAITZAREKIN KUTSATZEKO ARRISKUA DAGOENEAN EDO KUTSATUTAKOAN

PROTOCOLO DE PREVENCIÓN Y ACTUACIÓN EN CASO DE RIESGO DE CONTAGIO O DE CONTAGIO POSITIVO POR COVID-19

PREBENTZIO-NEURRIAK / MEDIDAS DE PREVENCIÓN

1. Kontrol-neurriak, jarduerari ekitean: norik bere burua kanpoan uztea, eta sintomen zaintza aktiboa parte-hartzaileen eta profesionalen artean.

Medidas de control al acceso a la actividad: autoexclusión y vigilancia activa de síntomas entre participantes y profesionales.

- **COVID-19 gaitzarekin bateragarriak diren sintomen zerrenda oraindik orain luzatu da, eta honako hauek dira: sukarra, eztula edo airea falta delako sentsazioa eta eztula, eta sintoma atipikoak, hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako minak, beherakoak, bularraldeko mina eta zefaleak.**

La sintomatología de sospecha compatible con el COVID-19 está recientemente ampliada e incluye: fiebre, tos o sensación de falta de aire y tos síntomas atípicos como la odinofagia, anosmia, ageusia, dolores musculares, diarreas, dolor torácico o cefaleas.

- **Parte-hartzaileak ez du bertaratu behar edo ezin du jardueran parte hartu COVID-19 gaitzarekin zerikusia izan dezakeen ezein sintoma sumatzen bada.**

La persona participante no debe acudir y no puede tomar parte en la actividad si presenta cualquier sintomatología que pudiera estar asociada con el COVID-19.

- **Parte-hartzaileak ez du bertaratu behar edo ezin du jardueran parte hartu gutxienez 14 egunez, COVID-19 gaitza izan duen pertsona batekin hurbileko kontaktua izan badu pertsona horrek sintomak zituen bitartean (bizikideak, familiakoak eta leku berean gutxienez 15 minutuz 2 metroko tartera baino gutxiagora egon diren pertsonak) edo pertsona harekin espazio berean pertsonen arteko distantzia gorde gabe egon bada, nahiz eta sintomarik ez eduki. 14 eguneko epealdi horretan, jarraipena egin behar da, gaixotasunaren zantzuak agertzen diren zaintzeko.**

La persona participante no debe acudir y no puede tomar parte en la actividad si ha estado en contacto estrecho (convivientes, familiares y personas que hayan estado en el mismo lugar que una persona afectada por el COVID-19 mientras presentaba síntomas a una distancia menor de 2 metros durante un tiempo de al menos 15 minutos) o compartido espacio sin guardar la distancia interpersonal con una persona afectada por el COVID-19, incluso en ausencia de síntomas, por un espacio de al menos 14 días. Durante ese periodo debe realizar un seguimiento por si aparecen signos de la enfermedad.



- **Parte-hartzaileak jardueran parte hartu ahal izango du, bere erantzukizunpean, zaugarria bada edo zaugarria den pertsona batekin bizi bada; zaugarria izan daiteke adinagatik, haurdun egoteagatik edo lehendik gaitzen bat edukitzeagatik (hala nola hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoa, minbizia edo immunoeskasia).**

La persona participante sí puede, bajo su propia responsabilidad, tomar parte en la actividad si es vulnerable o convive con una persona que sea vulnerable por: edad, por estar embarazada o por padecer afecciones médicas anteriores (como, por ejemplo, hipertensión arterial, enfermedades cardiovasculares, diabetes, pulmonares crónicas, cáncer o inmunodepresión).

2. Transmisioa prebenitzeko neurriak.

Medidas de prevención de la transmisión.

- **Parte-hartzaileek edo haien legezko tutoreek izango dute COVID-19 gaitzarekiko norberaren egoeraren erantzukizuna, COVID-19 gaitzarekin zerikusia duen adierazitako sintomaren bat baldin badu.**

Las personas participantes o sus tutoras deberán responsabilizarse de su situación particular frente al COVID-19, de tal forma que si alguno presenta la sintomatología asociada con el COVID-19 descrita.

- **Higiene-jardunbide osasungarriak irakastea, sustatzea eta indartzea, langile eta parte-hartzaile guztien artean. Jarduerari hasiera eman aurretik, antolatzaileek informazioa eskuorri digital baten bidez jakinaraziko dute, eta han berariaz adieraziko dute zer neurri ezarri dituzten segurtasunaren, jokabidearen eta higienezaren alorrean, bai eta erabiltzaileek zer jarraibide bete behar dituzten instalazio barruan ere. Hartara, aldeaz aurretik egongo dira arau horien jakinaren gainean.**

Enseñar, fomentar y reforzar prácticas de higiene saludables entre todo el personal y las personas participantes. Con carácter previo al comienzo de la actividad, la entidad organizadora distribuirá un folleto informativo digital en el que se especifiquen las medidas establecidas de seguridad, comportamiento e higiene, así como las directrices que deberá cumplir el usuario dentro la instalación, para anticipar de antemano el conocimiento y la práctica de estas pautas.

- **Jardueraren arduradunek zainduko dute jarduera segurua dela; horretarako, ezarritako segurtasun-protokoloa eta -neurri guztiak behar bezala beteko dituzte.**

Las personas responsables de la actividad velarán por la seguridad de la actividad mediante el adecuado cumplimiento de todos los protocolos y normas de seguridad establecidos.

- **Garbiketako eta desinfektatzeko egitekoak ugaritzea, laneko higienezaren eta osasunaren alorreko agintari eskudunek emandako gomendioak betez. Instalazioetan higieneko eta prebentzioko neurrien seinaleak jartzea, haien berri izan dezaten pertsona guztiak; horrezaz gain, seinale bereziak jartzea eremu jakinetan, hala nola komunetan, jangeletan, korridoreetan eta ikasgeletarako sarreretan.**

Intensificar las tareas de limpieza y desinfección, siguiendo las recomendaciones las



autoridades competentes en materia de higiene y salud en el trabajo. Implementación de señalización con las medidas de higiene y prevención por las instalaciones para su conocimiento general, ubicándose cierta señalización en zonas clave, como cuartos de baño, comedores, pasillos, puertas de entrada a aulas.

JARDUKETA, COVID-19 GAITZAREN KASU POSITIBOREN BAT HAUTEMANEZ GERO JARDUERAN

ACTUACIÓN FRENTE A CASO CONFIRMADO DE COVID-19 EN LA ACTIVIDAD

- **Norberaren konpromisoa segurtasuneko eta higieneko neurriekiko. Jardueri ekin aurretik, familiei edo izena eman dezaketen parte-hartzaileei helaraziko zaien informazioan, gogorarazi behar zaie, bai haiei eta bai antolatuko dituzten pertsoneri, nork bere osasunaren erantzukizuna duela eta higieneko eta prebentzioko neurriak errespetatu behar dituztela, eta ez dutela jardueretan parte hartzera joan behar inola ere, baldin eta sintomak edo ondoezak badituzte.**

Compromiso personal con las medidas de seguridad e higiene. Antes de la realización de las actividades, en la información que se facilitará a las familias o potenciales participantes para inscribirse en las mismas, se les ha de recordar, así como al personal que las organice, que son responsables de sus condiciones de salud y del respeto de las normas de higiene y prevención, y que bajo ningún concepto se ha de acudir con síntomas o malestar a las actividades.

- **Jarduketa, parte-hartzailearen batek COVID-19 gaitzaren sintomak izan daitezkeenak baldin baditu.**

Actuación en el caso de que algún participante presente síntomas de caso sospechoso de COVID-19.

Transmisio komunitarioko egoeran gaudenez, oso kontuan hartu behar da COVID-19 kasuak izan daitezkeela gaitzarekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsona guztiak. Halako kasuak behaketa bidez identifikatuko dira, edo parte-hartzaileek berek jakinarazita. Parte-hartzaile batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituenean edo jardueran zehar langile batek sintoma horiek detektatzen dituenean, norberak erabiltzeko gela batera eramango da, prozeduran identifikatuta. Gela horretan aireztapen egokia eta poltsadun pedalezko paperontzi bat egongo dira, eta bertan botako dira erabili eta botatzeko maskara eta zapiak. Era berean, parte-hartzaileari maskara kirurgiko bat emango zaio, eta beste bat zaintzen duen pertsona helduari. Kasu bakoitzean dagokion familiari, tutoreari edo hurbilekoari jakinaraziko zaio eta aisialdiko jarduera garatzen den lurralde-eremuan ezarritako osasun-arloko edo osasun publikoko dispositiboarekin harremanetan jarriko gara; dispositibo hori argi eta garbi ezarrita egon behar da prozeduran (osasun-zentroa edo larrialdietako erreferentzia-telefonoa), kasua ebaluatu ahal izateko. COVID-19 pandemiaren trantsizio-fasean diagnostikoa, zaintza eta kontrola egiteko estrategiaren arabera, hari dagokion lehen mailako arretako taldeak egin behar dio balorazio klinikoa eta eskatu behar du proba diagnostikoa egitea, kasua baieztatzeko, jakinarazteko eta jarraipen klinikoa egiteko, bai eta haren kontaktuak aztertzen hasteko ere (Osasun Publikoaren Zerbitzuarekin elkarlanean, antolaketa-esparruaren arabera). Langileren batek sintomak baditu, hari dagokion Lehen Mailako Arretako taldearekin jarri behar da harremanetan, bere hiriko erreferentziazko telefonoaren bidez eta/edo Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren bidez, eta haiek emandako jarraibideak beteko dira.



En la situación actual de transmisión comunitaria por la que estamos pasando se ha de tener en cuenta que todas las personas con síntomas compatibles son posibles casos de COVID-19. La identificación se producirá mediante observación o notificaciones por parte de las personas participantes. Cuando una persona participante presente síntomas compatibles con COVID-19 o estos sean detectados por una persona trabajadora durante la actividad, se le llevará a una sala para uso individual, identificada en el procedimiento, que cuente con ventilación adecuada y con una papelera de pedal con bolsa, donde tirar la mascarilla y pañuelos desechables. Asimismo se facilitará una mascarilla quirúrgica para la persona participante y otra para la persona adulta que cuide de ella, se avisará a la familia, persona tutora o allegada correspondiente en cada caso y se pondrá en marcha el contacto con el dispositivo sanitario o de salud pública establecido en el ámbito territorial en el que se desarrolle la actividad de ocio; que debe estar claramente establecido en el procedimiento (centro de salud o teléfono de referencia de emergencias), para que se evalúe su caso. Según la Estrategia de diagnóstico, vigilancia y control en la fase de transición de la pandemia de COVID-19, debe ser su equipo de Atención Primaria de referencia quien realice la valoración clínica y la solicitud de pruebas diagnósticas para confirmarlo, notificarlo, hacer el seguimiento clínico del caso, así como iniciar el estudio de contactos (en colaboración con los Servicios de Salud Pública según el marco organizativo). En el caso de personal trabajador se contactará con su equipo de Atención Primaria de referencia, y con el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales y se seguirán sus instrucciones.

- **Osasun Publikoaren Zerbitzuari dagokio, Lehen Mailako Arretarekin eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuekin elkarlanean, langilea bada, hautemandako kasu positiboan kontaktuen azterketa antolatzea.**

Corresponde a los servicios de Salud Pública, en coordinación con Atención Primaria y los Servicios de Prevención de Riesgos Laborales cuando sean personas trabajadoras, organizar el estudio de contacto de los casos positivos identificados.

- **Jarduketa, COVID-19aren kasu positiboa identifikatu ondoren. Elkartearen edo erakundearen protokoloa jarriko da abian, eta une oro beteko dira osasun-alorreko agintarien gomendioak.**

Actuación tras identificación positiva de caso de COVID-19. Se podrá en marcha el protocolo de la organización y se seguirá en todo momento las recomendaciones de las autoridades sanitarias.

- **Kasuen eta parte-hartzaileen eta profesionalen arteko kontaktuen kudeaketa egiteko, zaintza- eta kontrol-estrategiaren dokumentuan jasotakoa beteko da. Ez dagokie aisialdiko profesionaleri, ez kontaktuen azterketa egitea, ez jarduera bertan behera utzi edo ez baloratzea. Gomendatzen da, ordea, osasun-alorreko agintariak eskatutako zereginetan laguntzea eta lana erraztea. Egin kontsulta hemen: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/COVID19_Estrategia_vigilancia_y_control_e_indicadores.pdf**

El manejo de casos y contactos entre participantes y profesionales se debe realizar según lo indicado en el documento de Estrategia vigilancia y control. No corresponde a las personas profesionales en materia de ocio realizar ni el estudio de contactos ni la valoración de suspensión de actividad. Sí se recomienda que faciliten y colaboren en el trabajo que las autoridades sanitarias les soliciten. Consultar: <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov->



China/documentos/COVID19_Estrategia_vigilancia_y_control_e_indicadores.pdf

- **Beharrezkoa izanez gero, parte-hartzaileen etxerako itzulera koordinatuko da, eta jarduerak egiten jarraitzeko estrategiak abiaraziko dira, beste aukera batzuk aztertuta.**

En su caso, se coordinará el regreso de las personas participantes a sus domicilios y se implementarán estrategias para dar continuidad a las actividades evaluando alternativas.

PRESTAKUNTZA EZ-FORMALEKO ESKOLA ETA ERAKUNDEEK KONTUAN HARTU BEHARREKO INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO GARRANTZITSUA:

INFORMACIÓN Y DOCUMENTACIÓN DE IMPORTANCIA A TENER EN CUENTA POR LAS
ESCUELAS E INSTITUCIONES DE FORMACIÓN NO FORMAL

- **Lantokietako jardunbide egokiak: COVID-19 kutsadurari aurrea hartzeko neurriak (apirilaren 11n eguneratua).** Buenas prácticas en los centros de trabajo: medidas para la prevención de contagios del COVID-19 (actualización 11 de abril). Disponible en: <https://www.msccbs.gob.es/gabinetePrensa/notaPrensa/pdf/GUIA110420172227802.pdf>
- **COVID-19 gaitzaren sintomak izanez gero nola jokatu jakiteko dekalogo.** Espainiako Osasun Ministerioa. Decálogo sobre cómo actuar en caso de tener síntomas de COVID-19. Ministerio de Sanidad de España. Disponible en: https://www.msccbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/20200325_Decalogo_como_actuar_COVID19.pdf
- **Ameriketako Estatu Batuetan haur-eskolatik 12. gradura arte dauden eskoletako administrarientzako barneko gida eta haurren zainketako programak.** Guía interina para administradores de escuelas de kínder a 12.º grado y programas de cuidados infantiles en los Estados Unidos. Disponible en: <https://espanol.cdc.gov/coronavirus/2019-ncov/community/schools-childcare/guidance-for-schools.html>
- **Key Messages and Actions for COVID-19 Prevention and Control in Schools: March 2020. World Health Organization, UNICEF.** Disponible en: https://www.who.int/docs/default-source/coronaviruse/key-messages-and-actions-for-COVID-19-prevention-and-control-in-schools-march-2020.pdf?sfvrsn=baf81d52_4
- **Koronorabirusak (COVID-19) eragindako gaixotasunari buruzko orientabide teknikoa: ikastetxe, lantoki eta erakundeentzako orientabidea.** World Health Organization. Orientación técnica sobre la enfermedad por coronavirus (COVID-19): orientación para escuelas, lugares de trabajo e instituciones. World Health Organization. Disponible en: <https://www.who.int/emergencies/diseases/novel-coronavirus-2019/technical-guidance/guidance-for-schools-workplaces-institutions>
- **Zer esango diet haurrei konorabirusari buruz? Espainiako Osasun Ministerioa.** ¿Qué les digo a niños y niñas sobre el coronavirus?. Ministerio de Sanidad de España. Disponible en:



https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/img/COVID19_que_digo_a_poblacion_infantil.jpg

- **COVID-19ari buruko informazio eguneratua eta baliabideak, Espainiako Osasun Ministerioa.** Información actualizada y recursos sobre COVID-19 del Ministerio de Sanidad de España. Disponible en: <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/home.htm>
- **Osasun-larrialdiren bat baduzu, deitu zenbaki honetara: 112.** En caso de urgencia sanitaria llamar al 112.